



## 2. ARIKETA: GARAJEA

Garaje batek 150 kotxe gordetzeko aukera dauka. Bere atearen kanpoaldean oinezkoentzako zebra-bidea dauka. Istripuak ekiditzeko, automatikoki erregulatutako semaforo-sare bat ezarri da, autoen eta oinezkoen zirkulazioa hobetuz.

### *Prozesuaren deskribapena:*

ON sakatu eta gero oinezkoen semaforoaren (S.P.) tenporizazio-zikloa hasiko da. Oinezkoen zirkulazioa S.P semaforoak erregulatzen du. Semaforoaren sekuentzia finkoa izando da: 40sg. berdez eta 20sg. gorritz.


Auto bat sar dadin aparkatzeko lekua izan behar du. Egoera hau , (S.E.) semaforoaren argi urdinak adieraziko du. Beteta dauden plaza kopurua Kont\_plaza-en egongo da gordeta. Kontagailu hau eguneratzen da autoak sartzen edo irtetzen diren arabera (E2,S2).

Auto bat sartzeko dagoela E1 sarrerako sentsoak adieraziko du. Kasu honetan oinezkoen semaforoa gorritz badago (hau da, oinezkoek ezin dute zebra-bidea gurutzatu) eta baldin eta ez badago autorik irteten edo irten nahian, sarrerako semaforoa berdez jarriko da eta autoa sar daiteke. Sarrerako semaforoa berde jartzen denetik beste semaforoak gorritz egon behar dira, autoa garaje barruan erabat sartu dela detektatu arte (E2).

Auto bat irtetzeko dagoela S1 irteerako sentsoak adieraziko du. Kasu honetan oinezkoen semaforoa gorritz badago (hau da, oinezkoek ezin dute zebra-bidea gurutzatu) eta ez baldin badago autorik irteten, irteerako semaforoa berdez jarriko da eta autoa irtengo da. Irteerako semaforoa berde jartzen denetik, beste semaforoak gorritz egongo dira autoa garajetik erabat irten dela detektatu arte (S2).

Aldibereko sarrera eta irteera eskakizunen aurrean, irteerak beti izango du lehentasuna.

Atea irteerako edo sarrerako eskakizun bat egiten denean ireki edo zarratuko da. Irekitzeko karrera amaierako FCA aktibatzen denean dagokion semaforoaren argi berdea piztuko da. Atea zarratuko da dagokion sentsoa aktibatzerakoan, sarreran E2 edo irteeran S2. Autoak sartzen edo irtetzen ari diren bitartean ezin da atea zarratu. Hala ere, 3 minutu baino gehiago irekita badago eta irtetzeko edo sartzeko autoreen bat zain badago, oinezkoen ibilbidea ahalbidetzeko, 30 segunduko geldialdi bat egin beharko da. Geldialdi honek, autoen semaforoak gorritz egotea ekarriko du eta oinezkoen semaforoa berdez jarrito du.





Atea ireki eta gero, oinezkoen semaforoa gorritz egongo da atea guztiz zarratu arte, geldialdi bat gertatu ezik. Geldialdia gertatzen bada lehen apiatutako 30 segundutan berdez jarriko da eta ondoren gorritz atea guztiz zarratu arte edo geldialdi berri bat gertatu arte.

Su-alarma bat dago (AL). Aktibatzerakoan atea ireki beharko du eta sistemaren funtzionamendua galaraziko du errearmea gertatu arte.

**Autoen sarrera-irteera kontrolatzeko elementuak:**

- Hiru semaforo:
  - (S.P.) Oinezkoen semaforoa. Kontrol-sistemak piztu behar duen argia aldatu dezake ondoko seinaleekin: SPeaGorri eta SPeaBerde, gorritz eta berdez jarriko dituztenak hurrenez hurren.
  - (S.E.) Sarrerako semaforoa. Kasu honetan argiak aldatzeko aginduak ondokoak izango dira: SEGorri, SEBerde y SEUrdin.
  - (S.S.) Irteerako semaforoa. Kasu honetan argiak aldatzeko aginduak ondokoak izango dira: SSGorri, SSBerde
- Autoen sarrera eta irteera galaraziko duen atea (itxita dagoenean). Atea irekitzeko eta zarratzeko seinaleak: Ireki, Zarratu. Oinezkoak ezin dira sartu ate honetatik.
- Sentsore, karrera-amierako eta kontaktore multzoa:
  - Sarrerako sentsoreak:
    - E1 Aktibatzerakoan, sistemari auto bat garajea sartu nahi duela adierazten diona.
    - E2 Autoa garaje barruan dagoela adierazten duena.
  - Irteerako sentsoreak:
    - S1 Auto bat garajetik irten nahi duela adierazten duena.
    - S2 Autoa irten dela.
  - Atearen karrera amaierakoak :
    - FCC atea zarratuta.
    - FCA atea irekita.
- Martxan jartzeko pulstasailua (ON). Su-alarma bat dago (AL). Aktibatzerakoan atea irekitzea behartuko duena eta berriro martxan jartzea galaraziko duena errearmea sakatu arte(r).